



12. AKTA

2003ko urriaren 22an ospatutako **GOBERNU BATZORDEA**.

LEKUA: Pasaiako Hirian eta bertako Udaletxean.

DATA: bi mila eta biko urriaren hogeita bian.

ETORRITAKOAK:

Lore Suárez Linazasoro a.
Jesús M^a García Garde j.

Lehendakaria:

Izaskun Gómez Cermeño Andre Alkatea.

Lehenengo deialdian eta Izaskun Gómez Cermeño andre Alkatearen presidentzian goian aipatu zinegotziak bildu dira Joseba Belaustegi Cuesta Idazkari J. Behin-behinekoa bertan delarik, Gobernu Batzordea ospatzeko horretarako deialdia banaturik. Ezin etorria adierazi dute Lucía Querido Noceti andreak eta Xabier Pombo González jaunak osasun-arazoak direla eta.

Lehendakaritzak konstataturik Udalbatza legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela, batzarraldia irekitzat eman du 13:00etan, ondoren Gaizerrendako hurrengo puntuak aztertzeari ekinez.

1.- Aurreko batzarraldiko akta 11. 03-10-02ko irakurri eta onartzea.

Bertakoen kontsiderazioan jarriarik atalburuan aipatzen den akta, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea bere osoan eta dagokion Akta-liburuan jasotzea.

2.- 8/03 Kontu eta fakturen zerrenda.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea 8/03 zka. daraman kontu-fakturen zerrenda EHUN ETA HOGEITA HIRU MILA HIRUREHUN ETA BERROGEITA BI EURO ETA HOGEITA LAU ZENTIMOKOA (123.342,24 euro).

3.- Gizarte-beharrizan Larrietarako Laguntzetan aldaketak.

Ikusirik Gizarte Zerbitzuen Arduradunak 2003ko urriaren 6an aurkeztutako proposamena EJ-1/03 proposamenari dagozkion Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoen Modifikazioei buruzkoa, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez



ERABAKI DU

LEHENENGO.- Espedientean agertzen den onuradunaren EJ-1/03 proposamenari dagokion Gizarte Larrialdiaren Laguntza Ekonomikoak modifikatzea bertan azaltzen diren zioak direla eta, bertan agertzen diren kantitateak anulatuz.

BIGARREN.- Aipatu inporteak Gizarte Larrialdiaren partidan sartzea.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri Kontuhartzaitzaren Sailari ematea.

4.- Euskararen familia bidezko transmisioa programa barruan beka ematea.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez eta Euskararen Batzordeko Lehendakariak 2003ko irailaren 16an egindako proposamenez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- “Familien bidez Euskara Transmititzea” programaren barruan akordio honetako eranskian aipatzen diren beka ematea 1996ko irailaren 11n Euskararen Batzordeak ezarri zituen kriterioen arabera (asistentziaren %85 gaitzea eta matrikularen %50 abonatzea), 570,00 euroko inporte totalerik:

OIARBIDE PIÑEIRO, PILAR	60,00 euro
URDANPILLETA ARRIETA, MERCEDES	75,00 Euro
LOPEZ SANTOS, ALBERTO	75,00 euro
BIAIN PEREZ, ESTEBAN	60,00 Euro
GARCIA ARBEA, KONTXI	60,00 euro
GARCIA MADINA, BEATRIZ	60,00 euro
GUTIERREZ FUENTES, ASUN	60,00 euro
IRURTIA BONILLA, MAITE	60,00 euro
MARTINEZ SANCHEZ, EDURNE	60,00 euro
<hr/>	
	GUZTIRA 570,00 euro
	=====

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-1103/03 Baimenduaren kargura.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legozkiekeen errekurtsioekin.

5.- Trintxer Kulturala eta Donibaneko Emakumeen Elkarteari dirulaguntzak ematea 2002/2003 Ikasturteko Artesau Ikastaroak antolatzeko.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez eta Kultura eta Hezkuntzaren Zinegotzi Delegatuak 2003ko irailaren 25ean egindako proposamenez,

ERABAKI DU



LEHENENGO.- 2002/2003 Artisautza Ikastaroak antolatzeko hurrengo subentzioak ematea onartzea:

DONIBANEKO EMAKUMEEN ELKARTEA	900 euro		
TRINTXER KULTURALA			1.800 euro
		GUZTIRA	2.700 Euro

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-1801/03 Baimenduaren kargura.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legozkiekeen errekurtsioekin.

6.- Trintxer Kulturalari dirulaguntza ematea "Pasaiako Badia" 5. Laburmetrai Lehiaketa antolatzeko.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez eta Kultura eta Hezkuntzaren Zinegotzi Delegatuak 2003ko irailaren 25ean egindako proposamenez,

ERABAKI DU

LEHENENGO.- TRINTXER KULTURALARI 5.000,00 euroko subentzioa ematea "Pasaiako Badia" Bideo Laburraren 5. Mostra antolatzeko, hurrengo baldintzekin:

- Elkargoak konpromisoa hartu beharko du lehiaketa honetan euskarazko laburmetraje onenari saria emateko.

BIGARREN.- Pagua bi alditan egingo da eta hurrengo eran:

- 1. pagua: 3.750,00 euro. Akordio hau sinatzean.
- 2. pagua: 1.250,00 euro. Subentzioa justifikatzen duten dokumentuak aurkeztean.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko 05-481-451-10-01 partidaren eta A-1082/03 Baimenduaren kargura.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiekeen errekurtsioekin.

7.- Sukaldaritza Ikastaroetarako dirulaguntzak.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez eta Gazteria eta Kirolen Zinegotzi Delegatuak 2003ko urriaren 20an egindako proposamenez,

ERABAKI DU



LEHENENGO.- S.C.R.D. ITSASMENDI-ri 1.074,04 euroko subentzioa ematea gazteentzat Sukaldeko bi Ikastaro emateko.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko 07-481-456-20-01 partidaren eta A-838/03 baimenduaren kargura.

8.- Obra baimena Euskadi Etorbidea, 2.

Jasorik Julio Herrero Pordomingo jaunak 2003ko abuztuaren 20an egindako instantzia Correos y Telégrafosen ordezkartzan, non eskatzen duen Obra Txikiak egiteko Baimena La Herrerako Portu Zonan plataforma jasotzaile bat eraikitzeko.

Ikusirik Udal Teknikariak aurkako txostena eman duela.

Kontuan izanik aipatu erakina Arau Subsidiarioen La Herrerako Portu Zonan aurkitzen dela, Zoru Urbano bezala sailkatua Portuaren Erabileraren eta Portuaren Sistema Orokorren sailkapen orokorraren barruan. Portuko Zerbitzuen Zonan dago kokatua 2003ko irailaren 23ko Ministeritzak onartua.

Kontuan izanik hamar urte pasa eta gero ez direla izapidatu Ordenazioaren Plan Berezia ezta Portuko Espazioen Erabilpen Plana, nahiz eta 1991ko maiatzaren 31n Portuko Agintaritzak sinatu zuen akordio bat Udal honekin non konpromisoa hartu zuen Plan Berezia erredaktatzeko hemezortzi eguneko epe barruan.

Gertatzen delarik eremu honetarako udal lizentziek aipatu planek onarperna behar dutela.

Gertaturik "Correos y Teégrafos" eraikinak ez duela jarduera-baimenik, eta beraz 3/1998 Legearen arabera lortu behar baitute dagokion jardueraren baimena obra-lizentzia baino lehen.

Ikusirik 2003ko ekainaren 19ko ebazpena, hots, Gobernu Batzordearen atribuzioak delegeztatzen dituen, bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- "CORREOS Y TELÉGRAFOS"-i obra-lizentzia ukatzea La Herrerako Portuko Zonan plataforma jasotzailea instalatzeko, indarreango arautegi urbanistikoaren aurkakoa delako.

BIGARREN.- Interesatuari horretarako likidatuko zaizkion udal eskubideak helbideratzea behar bezala notifikatuz.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

9.- Hiritartze ekimenentzako laguntzak.

A) Juan Carlos Valverde Hijosa jaunaren eskaera.

Ikusirik Juan Carlos Valverde Hijosa jaunak 2003ko maiatzaren 9an egindako eskaera Mirasol baserrian bi etxebizitza berrabiltzeko obrak exekutatzeko laguntza ekonomikoak emateko.

Kontuan izanik obrak exekutatuta daudela eta badutela lehen erabilpenerako lizentzia.

Ikusirik udal Kontuhartzaileak luzatutako txostena non antzeko kasuan adierazten den aipatu obra ez dela sartzen Ordenantzak jasotzen dituen suposamenduetan, plan berriko eraikina delako.

Kontuan izanik ez dituela betetzen ekimen urbanizatzaileen laguntzak jasotzeko arrazoiak. Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- JUAN CARLOS HIJOSA jaunari ukatzea eskatutako bonifikazioak eta ekimen urbanizatzaileentzat laguntzak, zeren eta egindako obrak, planta berriko eraikina ez baita sartzen I.C.O.ren Ordenantza Arautzaileak jasotzen dituen inongo suposamenduetan ezta Ekimen Urbanizatzaileei laguntzak emateko kriterioen barruan ere.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legezkiokkeen errekurtsioekin.

B) San Joan kaleko 80ko Jabekideen eskaera.

Ikusirik FLORENTINA MORLA LUENGO andreak San Joan kaleko 80ko Jabekideen izenean egindako E.I.O.Z-en (Eraikuntza, Instalazio eta Obren Zerga) bonifikazio-eskaera aurtengo urtarrilaren azken aldean gertatutako haize indartsuen ondorioz.

Kontuan izanik aipatu gertaera meteorologikoa apartekoa izan zela eta obra benetan beharrezkoa, afektatuak bertan bizi zirelako.

Gobernu Batzordeak, Batzordeak 2000ko otsailaren 28an ezarritako kriterioei jarraiki eta bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U



LEHENENGO.- Pasaiako Udalerrri honetako San Joan kaleko 80ko Jabekideei ekimen berrabiltzailerako laguntza ematea 629,75 euroko kantitate totalen E.I.O.Z-en %50ari dagokiona eta Tasa Ekimen Urbanizatzaileen 108.480.432.00.01 partidaren karguarekin likidatuak.

BIGARREN.- Eskatzaileei jakinaraztea lizentzian aipatzen den obra amaituaren dokumentazioari baldintzatua geratzen dela.

HIRUGARREN.- Subentzio hau abonatu da likidatutako Tasa eta Zergei dagokien pagua egin eta gero.

LAUGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legozkiekeen errekurtsioekin.

C) Sa Joan kaleko 94ko Jabekideen eskaera.

Ikusirik San Joan kaleko 94ko Jabekideek egindako E.I.O.Z-en (Eraikuntza, Instalazio eta Obren Zerga) bonifikazio-eskaera aurtengo urtarilaren azken aldean gertatutako haize indartsuen ondorioz.

Kontuan izanik aipatu gertaera meteorologikoa apartekoa izan zela eta obra benetan beharrezkoa, afektatuak bertan bizi zirelako.

Gobernu Batzordeak, Batzordeak 2000ko otsailaren 28an ezarritako kriterioei jarraiki eta bertako zinegotzien aho batez,

ERABAKI DU

LEHENENGO.- Pasaiako Udalerrri honetako San Joan kaleko 94ko Jabekideei ekimen berrabiltzailerako laguntza ematea 879,55 euroko kantitate totalen E.I.O.Z-en %50ari dagokiona eta Tasa Ekimen Urbanizatzaileen 108.480.432.00.01 partidaren karguarekin likidatuak.

BIGARREN.- Eskatzaileei jakinaraztea lizentzian aipatzen den obra amaituaren dokumentazioari baldintzatua geratzen dela.

HIRUGARREN.- Subentzio hau abonatu da likidatutako Tasa eta Zergei dagokien pagua egin eta gero.

LAUGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legozkiekeen errekurtsioekin.

10.- Arrandegi, 15-29 Eremuari dagokion Urbanizazio Proiektuaren behin betiko onarpena.



Udalak hasierako onespena eman zion Arrandegi kaleko Urbanizazio Proiektuari, hain zuzen ere, Arrandegi 15-29 2.05.03 Exekuzio Unitatean 40 etxebizitza, lokal eta garajeen eraikuntzari lotutako Urbanizazio Proiektuari. Proiektua Orbela, S.A.k aurkeztu zuen eta Juan Carlos Errandonea arkitektoak idatzi. Erabaki hori jendaurrean jarri da 15 egunetan.

Alegazioak aurkezteko emandako epean inork ez du halakorik aurkeztu.

Urbanizazio-lan guztiak egiteko aurrekontua 297.282,58ekoa da (49.463,659 pta.).

Kontuan hartu ditugu honako arau hauek: 17/94 Legearen 7 eta 8.3 artikulua, Etxebizitzaren Arloko Presako Neurriak eta Hirigintza Plangintza zein Kudeaketako Tresnak Izapidetzeko Neurriak zehazten dituen; 21.1 j) artikulua, alkateari urbanizazio proiektuak behin betiko onartzeko ardura ematen diona; eta 2003ko ekainaren 19an alkateak emandako ebazpena, Gobernu Batzordeari eskumenak ematen dizkiona.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

ERABAKI DU

LEHENO.- Arrandegi 15-29 2.05.03 eremuari dagokin Urbanizazio Proiektua behin-betiko onartzea, 2002ko uztailaren 24an ikus-onetsitako proiektu eta 2002ko azaroaren 4an ikus-onetsitako eranskinaren arabera, biak ere Juan Carlos Errandonea arkitektoak idatzitakoak; inork ez baitu alegaziorik aurkeztu.

BIGARREN.- Hilabeteren buruan, urbanizazio obrak onartzen direnetik kontatzen hasita, urbanizazio proiektuaren eta eranskinaren testu bategina aurkeztu behar dute, ikus-onetsia. Testu horretan obran egindakoa azalduko da. Obra egiterakoan ondoko baldintzak bete behar dituzte:

1.-Urbanizazio-obrak diseinatu eta egiterakoan material, hiri-altzari, azpiegitura, instalazio... berdinak erabiliko dituzte kalearen goialdean eta behealdean (2.05.02 eta 2.05.03 HJEak); kale bakarra lortze aldera.

Horretarako, elkarlanean arituko dira bi eremuetako sustatzaileak eta obra egileak, udal sail eta zerbitzu teknikoekin batera.

1.1.- Ordenamendu, material eta azpiegituretan ondoko aldaketak egin behar dira:

Pasaiako Udalak lokal bat erosteko eskaintza jaso du 21. atariko solairu artean. Lokal horrek erabilera publikoa izan dezan, bertara sartzeko Arrandegi kaletik eskailerak eta arrapala jarri behar dituzte, aurrez ezarrita dagoen gutxieneko zabalerarekin.

Eskailerak eta arrapala non eta nola jarriko dituzten zehazten dutenean eta obra egin aurretik, Hirigintza saileko udal teknikariei aurkeztu behar diete proposamena, horien onarpena ezinbestekoa baita.

Obra hauetan bete egin behar dira martxoaren 23ko 59/1981 Dekretuan ezarritako eskakizunak; dekretu hori Eusko Jaurlaritzako Lurralde Politikarako Sailarena da eta Arkitekturak Oztopoak Kentzeko Araudia ezartzen du.

Indarrean dagoen legeriaren arabera, eskudelak bi altueratan jarriko dituzte eta eskaileraren bi aldeetan, eskaileren neurriei eta kanpoko arrapalei buruzko eskakizunak betetze aldera.

Oinezkoentzako asfaltozko bide guztiek gutxienez 2,00 m-ko zabalera izan behar dute, eta irrisgarritasunari buruz indarrean dagoen araudia bete behar dute: baranden zabalera eta altuera, eustormak, eserlekuak, eskailera mailak eta kontramailak... Baldin eta eremuak duen malda dela-eta baimenduta dauden gehieneko maldak bete ezin badituzte, espaloietan eta Arrandegi kaleko arrapaletan araututakoa bete beharko dute.

+ 22.00 kotan aurreikusita dagoen jolastokiari dagokionez, patinete-pista jartzeko aukera ere badago, beraz, obrak egiterakoan erabakiko dute.

Jolastoki horizontalak eta Arrandegi kaleko malda elkartzen diren tokian baranda-eserleku gisako hormatxoak jarriko dituzte; eustormak harlanduzkoak izango dira eta goialdeko eserlekuetarako barandak jarriko dituzte, edo bestela, udaleko zerbitzu teknikoek erabakiko dute zer jarri.

Erorketa libreko altuera legeak baimentzen duena baino handiagoa den tokietan, baranda edo bestelako babesgarriren bat jarri behar dute, sendoa eta lurrari finkatua, inor eror ez dadin, eta horren gutxieneko altuera 1 m-koa izango da, desnibelaren goialdeko behealdetik kontaktzen hasita.

Espaloien urbanizazioari dagokionez, ondokoa adierazi beharra dago: baldosa hidrauliko hexagonal zuria jarriko dute, zintarri grisarekin. Urbanizazioan zintarri indartuak jarriko dituzte. Arrandegi kaleko oinezkoentzako gaineko pasabideen aldeetan metalezko gontzak jarriko dituzte, ateratzeko modukoak, ibilgailuak barrura sar ez daitezen. Arrandegi kaleko alde bikoitian (pasabiderik ez dagoen tokietan) baranda bat jarriko dute, mugikortasun txikia duten pertsonentzako.

Gontz eta baranden modeloa aukeratzeko eta **horien akabera nolakoa izango den erabakitze**ko, Pasaiako Udaleko Hirigintza Sailak eta Zerbitzuetako Sailak esaten dutena kontuan hartuko dute.

+21,40 kotan, eskaileraren ondoan dagoen egoteko zonan (lauki itxurako horretan) bi banku jarriko dituzte aurrez aurre; hormigoi estriadunak gutxienez 3,50 m-ko zabalera izango du eta barandari lotuta jarriko dute, planoetan eustormaren kontra jarrita ageri bada ere; eta bankuak berriz, pasabidearen atzealdean jarriko dira, eta ez barandaren kontra.

+21.40 eta 22.00 koten arteko arrapalak bete egin behar du maldei buruzko araudia, edo bestela, aldaketa puntualak egingo dira.

Obrak egin eta behin betiko konponbideak zehaztu ondoren, 4C erako planoak aurkeztuko dute, aldatua; bertan konponbide horiek jasoko dira, baranda-banku-hormatxoei buruzko xehetasunak barne, horiek ahal den heinean bete egingo dute indarrean dagoen irrisgarritasunari buruzko araudia.

1.2.- 8. planoan, saneamendu-, ur- eta gas-sareari buruzko proposamena jasotzen da. Sare horri dagokionez, Zerbitzu, Sare eta Mantentze-lanen Sailak egindako txostenean eskatutakoa bete behar dute, eta baita AASSetan araututakoa ere. Gainera, ondoko hutsuneak konpondu behar dituzte:

- Ur-hartunea kokatzeko garaian kontu handiz jokatu behar dute, oraindik ez baitago zehaztuta non jarri behar den, halaxe jasota dago eranskinaren 2.5 puntuan.
- AASSen 169 eta 196 artikuluetan ezarritakoa bete behar dute, hau da, 50 metroko lurpean sute-aho berriak jarriko dituzte, eta adierazi egingo dute Arrandegi alboko eremuan orain dauden sute-ahok eta aurreikusita daudenak.

Ur-hartuneak kalearen alde batean jarriko dituzte, eta gehienez ere 25 m-ko tartea egongo da batetik bestera. Dokumentu grafiko gehigarrietan zehaztu egingo dira sareen ezaugarriak: elementuak, juntak, giltzak, ukondoak etab., sare orokorretik eraikina eta urbanizaziora bitarte.

- Eraikin berrien barne saneamenduko sareak separatiboak izango dira, gutxienez 300 mm-ko diametroa izango dute, eta horien kutxetak lurzoru publikoan jarriko dira. Neurriak arauetan ikusi, Arrandegi kalean dagoen saneamendu-sare orokorrarekiko loturaren aurretik.

Barruko isurketa-kutxetak, saneamendu-sare orokorrarekiko loturaren aurrekoak, espaloietan jarriko dira, eroanbide publikoa eta pribatua zehaztu ahal izateko.

Sare horiek bete egingo dituzte indarrean dagoen Pasaiako planeamenduan eskatzen diren gutxieneko neurriak, hau da, kutxeten tamaina, eroanbideen gehieneko eta gutxieneko maldak, kutxeten neurriak, arekatan biltzea...

- Egoteko gune eta eskailera berrietan euri-urak behe aldeko abiaburuetan jasoko dira, gutxienez bi ataletik behin; hartara, urak ez du arriskurik sortuko, ez eta espaloia hondatuko ere.
- Jolastokian iturri bat jarriko dute, +22.00 kotan, ura biltzeko gune eta guzti.
- Jolastokietan, pilota-kantxetan, espaloi-etan, egoteko guneetan, eskaileretan... ez dute proposatu ura nola bilduko den, malda handiak dauden arren. Beraz, hutsune hori konpondu beharra daukate plano bat aurkeztuz. Plano horretan ur-bilketa eta kanalizazioa zehaztuko dituzte.

Ondoko xehetasunak adieraziko dituzte: euri-uren eroanbideen sekzioa; jolastoki bezala erabiliko diren terraza lauetako eta kirolguneetako ur-bilketa eta kanalizazioa; ez dira onartuko paramentu bertikalei lotutakoak.

Baimen-agiri honek ur-hornidurararekin lotura egiteko baimena ematen du; nolana ere, Ur Zerbitzura joko dute lotura egin eta proposatutako instalazioa onar dezaten.

1.3.- 9. Planoan energia elektrikoa, argiteria eta telefoniari buruzkoa da eta alderdi horiek AASSen 171 eta 173 artikuluetan arautzen dira. Espaloiak, eskailerak, egoteko guneak, jolastokia, atarietako sarrerak,



oinezkoen kantxak... behar bezala argiztatu behar dira, indarrean dagoen araudiaren arabera; edo lurpeko kanalizazioak eginda utziko dituzte, ondoren udalak behar diren jarduketak egin ditzan.

Halaber, herriaren argiztapena bateratua eta homogeneoa izan dadin, kaleko bi aldeetan hiruzulorako argiak jarriko dituzte, Arrandegi 2.05.02 eremuan dauden zirkuitoen jarraipen gisa.

Kontuan hartuta Arrandegi kaleko alde bikoitian linea elektrikoak eta hartuneak etxebizitzentzat doazela, lurpeko eroanbideak egingo dituzte, etorkizunean instalazio horiek lurperatu ahal izateko Arrandegi kalean.

Lurpeko eroanbide horien diametroa 160koa izango da.

Instalazio bakoitzak bere kutxeta izango du, eta eraikin bakoitzaren aurrealdean eroanbideen abiaburuak jarriko dira, bere garaian instalazio guztiak lurperatu ahal izateko: sare elektrikoak, telefonia-sarea, telekomunikazioak, argiteria publikoaren sare berriaren hartunea alboko lubakietarako...

Horrez gain, prest utziko dituzte hartune elektrikoak, batetik etorkizunean Arrandegi kaleko 10 eta 10bis zenbakietan izango diren oinezkoentzako atarpeetarako, eta bestetik, Arrandegi kaleko alde bikoitirako: etxebizitza, kalezulo, lubaki eta harmailaldietako sarreretan.

Argiei dagokienez, ez dute babes-kaxarik aurreikusi, ez Arrandegi kaleko argietan, ez jolastoki eta kantxetako argiztapen selektiboan. Hortaz, alderdi hori konpondu eta osatu egingo dute aurkeztu behar duten dokumentazioan.

Eremuko argiztapena eta argiteria kokatzeko garaian kontuan hartuko dute udaleko Zerbitzu, Sare eta Mantentze-lanen Sailak esandakoa. Etorkizunean kanpoko loturak egiteko bi kutxeta jarriko dituzte alde banatan. Halaber, sustatzaileek gaur egun dagoen instalazioarekiko loturak egingo dituzte, horretarako eroanbideak jarriko dituzte udal-saretaraino.

Argiak non jarri erabakitzeko garaian kontuan hartuko dute espaloi eta pasabideetan ez diela oinezkoen trazarik egin behar.

Zerbitzuko argiztapen minimoa batez beste 15 lux-ekoa izango da, uniformetasun faktorea, berriz, gutxienez 0,30ekoa.

Proiektuan ez da zehazten kantxetan zernolako argiztapen eta argiak jarriko dituzten. Batez beste 100 lux-eko argiztapena justifikatu behar dute; gainera, argiak independienteak izango dira, hau da, horiek bakarrik itzaltzeko modukoak.

Kantxetako argiztapenari dagokionez, ondokoa adierazi beharra dago: proposatu duten argiteria publikoa argian ezin izango da oraingo argiztapen publikoarekin lotu, linea horiek gainkarga dutelako eta linea-

amaierak direlako. Hori dela eta, agian aginte- eta babes-koadro berri bat instalatu beharko dute, kantxetarako bakarrik izango dena; Pasaiako Zerbitzu, Sare eta Mantentze-lanen Sailarekin batera erabaki beharko dute instalazio hori beharrezkoa den edo ez eta non kokatu. Horrez gain, Tentsioa Erregulatzeko eta Egonkortzeko tresneria jarri behar dute.

Halaber, oinezkoentzako gune ilunetan argiak jarriko dituzte, bereziki garajeko sarbidean. Argiteria publikoaren eroanbide guztiak lurpean jarriko dituzte.

Argiak jartzeko garaian, kontuan hartuko dute energia aurreztea eta kutsadurarik ez sortzea.

1.4.- 10. planoan telekomunikazio eta udal sareari buruzkoa da. Horri dagokionez, lehen aipatutako eroanbide elektrikoez gain, etorkizunari begira 110eko diametroa duten 4 hodi jarriko dituzte, AASSen 176. artikulua dionari jarraiki. Eroanbide horietan kutxetak jarriko dituzte, 60 x 60 x 60 neurrikoak; 25 m bakoitzeko kutxeta bat eta eremuaren lau ertzetan kutxeta bana, horrela jarduketa eremu osoa hartuko da.

Udal eroanbide hauek behealdeko eremutik (2.05.02 eremua) datozen eroanbideekin lotuko dituzte, horien jarraipena izango direlako; nolana ere, eremuaren bi ertzetara eta Arrandegi kaleko zenbaki bikoitietara iritsiko dira.

Atari bakoitzaren aurrean kutxeta bana jarriko dute, bi aldeetan. Diseinu horren berri eman zitzaien obra sustatu eta zuzendu duen enpresari, Orbela, S.A.ri alegia.

1.5.- Gas naturalaren lurpeko eroanbideak, indarrean dagoen araudiaz gain, ondokoa bete behar du: “... *beste hodiak dauden zanga berean etorkizunean gas naturala pasatzeko eroanbideak jarriko dituzte*”.

2.- Arrandegi kaleko urbanizazioak behar bezala lotu behar dira, hau da, urbanizatzen ari diren 2.05.02 HJEa eta txosten honetan hizpide dugun eremua. Bi urbanizazio horietako sareen arteko loturak koordinatu egin behar dituzte, Zerbitzu, Sare eta Mantentze-lanen Sailak egindako txostenak adierazitakoari jarraiki (Telefonoa 943-004310), zeinen ikuskaketa eta onarpena beharko baitute sare orokorreko lotune guztiek.

3.- Obretan hondatu, aldatu edo sortzen diren ezpondak sendotu behar dituzte eta horien zuinketa egin. Halaber, obrak egiterakoan eremutik kanpo hondatutako bideak eta azpiegiturak konpondudo dituzte.

Jolastokiko hormigoari dagokionez (leundutakoa nahiz ildaskatua), espazioak bereizteko aukera ezberdinak daude: kolorea eman dakiok, edo harrizko zintarriak jarri, edo bestelako konponbideren bat proposatu. Nolanahi ere argi eta garbi bereiztu behar dira jolasteko gunak eta egoteko gunak.

4.- Obrak amaitu ondoren, urbanizazio proiektuaren testu bategina aurkeztu behar dute, gehienez ere hilabeteren buruan, urbanizazioa onartzen denetik kontaktzen hasita. Proiektuak zehaztasun osoz jaso behar ditu eremuko azpiegitura guztiak, sareak eta hauen sakonera plano topografiko digitalizatuaren gainean, DWG euskarrian, 1/200 eskalan eta udal erpinak oinarri hartuta Pasaiako Udalaren orri eta geruzen arabera. Behin betiko Urbanizazio Proiektua altxaketa topografiko batean adieraziko dute, udalerritik gertuen dauden 4 erpin geodesikoak oinarri hartuta. Horretarako Hirigintza Saileko delineazio arloari kontsulta egingo diote.

Jarduketa eremuan jarritako instalazio guztien plano bana aurkeztuko dute, egindako obrekin eta adierazitako eraikuntza-aldaketekin, txosten honetako puntu honetan jasotakoak barne.

Ekarri beharreko dokumentazioan, ur zikinentzat eta euri-urentzat oplano banaz gainera, DWG euskarri digitalizatuan eta kuxteta, hustubide eta eremuko lurrazpiko konduktu eta instalazio guztientzat kanpo aldeko kota altua eta barruko behekoa konstarazi beharko dira.

Urbanizazio horrek, lehen adierazitakoaz gain, Ordenantza Orokorren bosgarren titulua bete behar du, bereziki ondoko puntu hauei dagokienez:

- Ur zikinatarako sarearen kutxetak estankoak izango dira.
- Sustatzaileek udalarentzako egin dituzten lurpeko eroanbideak, telekomunikazioen sarea eta beste hainbat: energia elektrikoaren hornidura, telefonia, gas naturala..., beste azpiegitura pribatu batzuekin batera, udalari laga behar dizkiote eta udalak zerbitzu horietako enprekin adostuko du horien erabilera. Gainera, seinalatu egingo dituzte Ordenantza Orokorren 176. artikulua betetze aldera jarritako hodiak.
- ***Sare pribatuak eta eraikinean bakarrik erabiliko direnak ezin zaizkio udalari laga.***

5.- Udalak bere gain hartuko ditu urbanizaturiko eremuak mantentzeak sortzen dituen gastuak, udalak legez utzitako eremuetan egin badira, eta egindako obrak udalak onartu baditu.

Erabilera publikoko zortasuna duten eremu pribatuen mantentze-lanak Ordenantza Orokorren 168 artikuluan adierazten den eran egingo dira, eta eskrituretan hala jasoko da.

6.- Obrak hasi baino lehen Udalari jakinarazi behar zaio zein teknikari izendatu diren, arkitektoa eta arkitekto teknikoa, eta horrekin batera izendatu diren teknikarien berriazko adostasuna.

7.- Urbanizazioaren garrantzia eta akaberak kontuan hartuta, sustatzaileek eta udalak 600.000 euroko bermea ezartzea adostu zuten. Baina hainbat eraisketa, erosketa etab. egin behar izan dutenez, udalak berme hori murriztea onartu du, 400.000 eurora; ez, ordea, 200.000 eurora, sutatzaileek 2003-1-30ean eskatu bezala.

Berme horren murrizketa onartu ahal izateko, dagozkion udal izapideak egin behar dira, bermea udalbatzarrean onartu baitzen.

400.000 euroko bermea urbanizazio- eta eraikuntza-lanak hasi aurretik jarri behar dute.

Halaber, obrak egiteko kamioiak pasatzea ezinbestekoa denez, eta hauek errepidea, kalea eta instalazio publikoak hondatzen dituztenez; eragiten dituzten kalte guztiak konpondu beharko dituzte, eta hala egingo dutela bermatzeko 9.000 euroko abala eskatuko zaie.

Enpresa sustatzaileak berehala konpondu beharko ditu udalaren urbanizazio, azpiegitura eta instalazioetan eragindako kalteak. Horrez gain, udal teknikariek obra ikuskatu ondoren egindako txostenetan adierazitako kalteak ere konponduko dituzte.

Prebentzio neurriak hartuko dituzte, besteak beste:

- a) Azpiegiturak babestu behar dira (kutxetak, farolak etab.) xafla metalikoak edo bestelako babesgarriak jarrita; horrela, ura, gasa, saneamendua eta beste hainbat hornidura-hodi zapaltzea saihestuz.
- b) Ikuspen urriko kale horretatik trafiko ugari dabilenez, goialdeko eta behealdeko sarbide guztiak babestuko dituzte, behin-behineko gontzak edo hesiak jarritz. Babesgarri horiek segurtasun proiektuan jasoko dira. Kamioiak beti toki beretik sartuko dira obrara.

Galtzada publikoa beti garbi-garbi egongo da, lokatzik eta oztoporik gabe.

- c) Adierazitako neurri horiek hartu ezean, udalak egingo lituzke lan horiek baimen eskatzailearen kontura.

Halaber, obrak hasi aurretik, zuinketa egiaztatzeko akta eskatu behar diote udalari, Ordenantza Orokorren 40. artikulua araber.

Zuinketa egiaztatzeko eskaerari lizentzia honetan eskatzen diren abalak eta tasak jarri direla ziurtatzen duten agiriak erantsiko zaizkio.

Egiaztatzea eta aldaketak zuinketa-aktan jasoko dira.

8.- Obrak amaitu ondoren, udal azpiegiturak eta urbanizazio-lanak onartzeko eskaera aurkeztu behar dute, testu bategina aurkeztuz, ikus-onetsia eta dwg euskarrian.

Testu horrek jaso egingo ditu egindako aldaketa guztiak eta txosten honetako baldintza guztiak beteko ditu.

HIRUGARREN.- Udal eskubideak likidatu, behar bezala jakinarazi ondoren.

LAUGARREN.- Erabaki hau interesdunari jakinarazi eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsioen berri ematea.

11.- Ondaren erantzukizuneko hainbat erreklamazio.

A) Julio Manuel Besada Papim jaunak formulatutako erreklamazioa.



Ikusirik 2003ko irailaren 10ean 8454-CKN ibilgailuan egindako kalteak, Pasaia udalerrri honetako Oarso kaleko 1 zenbakiaren parean, Udalak galtzadan ezarritako pibote bat jotzean.

Ikusirik Udaltzaingoaren txostena non ontzat ematen diren aurreko gertaerak.

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- JULIO MANUEL BESADA PAPIM jaunari kalteordainak abonatzea 225,18 euroko kantitatez bere jabetzako ibigailuaren kolpeleungailuan izandako kalteengatik.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

B) Rosario Lafuente González andreak egindako erreklamazioa.

Ikusirik eskatzaileak jasandako lesioak Pasaia udalerrri honetako Lezo-Bide kalean erortzean, zolatu gabe zegoen zati batean estropezu egin eta erorita.

Kontuan izanik eskatzaileak jada jaso duela kalteordaina Aseguru Konpainiaren eskutik, zeinekin baitauka Udalak Erantzukizun Zibilaren aseguru kontratua.

Ikusirik aipatu aseguruaren erantzukizun baldintzak non esaten den Udalari dagokiola frankiziako 901,52 euroak ordaintzea.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

ERABAKI DU

Frankiziako 901,52 euroak ordaintzera.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 14:00etan, batzarraldia amaitutzat eman da, honen edukia akta honetan jasoz, hau Alkate andreak eta nik, Idazkari bezala ziurtatuz, sinatu dugularik.